



Maiz egiten diren galderak, honako prozedura hauei buruz: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa eremuko lanpostuen barnean Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten Kidegoetan sartzeko eta igotzeko hautapen prozedurak eta aipatutako irakasleen kidegoetan espezialitate berriak eskuratzeko prozedura

Dokumentu honetan jasotako informazioa orientagarria da, eta ez da inola ere loteslea izanzen administrazio prozedurak ebazteko. Zalantzarik edo araudiarekin desadostasunik izanez gero, azken hori hartu behar da kontuan beti, horixe baita administrazio jardura arautuko duena.
Dokumentu hau egindako kontsulten arabera eguneratzen ahalko da. Noiz eguneratua: 2024-12-15

Aurkibidea

DEIALDIAREN EBAZPENA ETA HAREN BARNEAN SARTZEN DIREN PROZEDURAK	5
Zein ebazpenek onesten ditu Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten Kidegoetan sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan igotzeko hautapen prozedurak?	5
Zein egunetan argitaratu zen ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean?	5
Zein da eskabideak aurkezteko epea?	5
Zein dira parte hartu ahal izateko prozedurak?	5
Nork har dezake parte sarbide irekiko hautapen prozeduran?	5
Txanda irekiko hautapen prozeduraren bidez aurkez naiteke eskainitako lanpostu guztietara? ...	6
Nor aurkez daiteke desgaitasuna dutenendako erreserba txandako lanpostuetara?	6
Nork har dezake parte Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozeduran?	6
Nork har dezake parte espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran?	6
KIDEGOAN SARTZEKO HAUTAPEN PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA ETA BETEBEHARREN ETA MEREZIMENDUEN FROGAGIRIAK AURKEZTEA	7
Zein da hautapen prozeduretan parte hartzeko eskabidea eta betebeharrak eta merezimenduen frogagiriak aurkezteko epea?	7
Zein egunetan bete behar dira onartuak izateko betebeharrak?	7
Zenbat eskabide aurkeztu behar ditut prozedura honetan?	7
Zer gertatzen da parte hartzeko hainbat eskabide aurkezten baditut?	7
Zein merezimendu balioetsiko dira lehiaketaldiko merezimenduen baremoan?	7

Nola aurkeztu behar ditut merezimenduen egiaztagiria?	7
Zer da kopia eskaneatu bat deialdi honi dagokionez?.....	8
Parte hartzeko eskabidea Erregistro Orokorraren bidez tramitatzen ahal dut?	8
Zer dokumentu mota eranstean ahal dut eskabide telematikoan?	8
Espezialitate batean baino gehiagotan aurkez naiteke hizkuntza berean?.....	8
Deialdian badira zenbait espezialitate, desgaitasuna dutenendako lanpostuen erreserbarik ez dutenak. Halakoetan, nola tramitatu behar dute beren eskabidea ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenek?	8
Unibertsitateko gradu bat dut eta ez dut prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko masterrik. Halaber, Lanbide Heziketako goi mailako ziklo bat eta prestakuntza pedagogikoko espezializazio diploma (“ez masterra”) ditut, eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten Kidegoko espezialitateetara aurkeztu nahi dut. Zer titulazio aurkeztu behar dut?	9
Unibertsitateko gradu bat dut eta ez dut prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko masterrik. Halaber, Lanbide Heziketako goi mailako ziklo bat eta prestakuntza pedagogikoko espezializazio diploma (“ez masterra”) ditut, eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko espezialitateetara aurkeztu nahi dut. Aurkez naiteke?	9
AZTERKETA EGITEKO ESKUBIDEAK.....	10
Nor daude tasak ordaintzetik salbuetsita?	10
PROZEDURARAKO ONARPENA.....	10
Zer jarduketa egin behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean?	10
Non argitaratuko dira behin-behineko eta behin betiko zerrenden ebazpenak eta behin-behineko zerrendei egindako erreklamazioak?.....	11
Nola jakinaraziko dira behin-behineko eta behin betiko zerrenden ebazpenen onespina eta behin-behineko zerrendei egindako erreklamazioa?	11
KIDEGOAN SARTZEKO HAUTAPEN PROZEDURA	11
Zein dira sartzeko hautapen prozeduraren faseak?	11
Zein dira oposizioaldiko probak?	12
Noiz hasiko da oposizioaldia?	12
Zein hizkuntzatan egin behar dira oposizioaldiko probak?	12
Zein dira oposizioaldiko proba praktikoaren ezaugarriak?.....	12
Zer araudik arautzen ditu oposizioko gai zerrendak?	13
Lehen ariketako bigarren probara aurkez naiteke, lehen probara aurkeztu ez banaiz?	13
PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA ETA UNITATE DIDAKTIKOA.....	13
Zer berrikuntza daude, programazio didaktikoaren aurkezpenari dagokionez?.....	13

Salbuespenik al dago formatu digitalaren baldintzaren inguruan, programazio didaktikoaren aurkezpenari dagokionez?	13
Zer ulertzen da deialdian esaten bada izangaiak egin duela programazio didaktikoa?	13
Zer eduki izan behar dute programazioak eta unitate didaktikoak?	13
Zein alderdi formal eta luzera izan behar ditu programazio didaktikoak?	14
Unitate didaktikoen ordezkari ikaskuntza egoerak ezar daitezke?	14
Programazio didaktikoa nahitaezkoa da hezkuntza arreta ez-presentziala aipatzea?	14
Hezkuntza orientazioko eta komunitatearentzako zerbitzuetako espezialitateen programazio didaktikoen kasuan, aurkez al daiteke urteko lan plan bat?	15
SARTZEKO PROZEDURARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA	15
MEREZIMENDUEN BAREMOKO I. ATALA: IRAKASLE LANETAN EGINDAKO ZERBITZUAK	15
Nola justifikatuko dira Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuarendako egindako zerbitzuak?	15
Nola justifikatuko dira beste hezkuntza administrazio batzuetan egindako zerbitzuak?	15
Nola justifikatuko dira ikastetxe publikoez bestelako ikastetxeetan egindako zerbitzuak?	16
Nola justifikatuko dira Espainiako zein atzerriko unibertsitateetan egindako zerbitzuak?	16
Nola justifikatu behar dira atzerrian egindako zerbitzuak?	16
MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.1 ATALA: IKASKETA ESPEDIENTEA	17
Eskatzen den titularen ikasketa espedientean ez bada batez besteko nota agertzen, espedientea balioetsiko da?	17
MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.3 ATALA: UNIBERTSITATEKO BESTE TITULAZIO BATZUK	18
Baloratzen al dira nahitaezko titulu ez diren gradu tituluak?	18
Titulazio berean oinarritzen diren espezialitateak balioetsiko dira?	18
MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.4 ATALA: ATZERRIKO HIZKUNTZEN TITULUAK	18
Zein hizkuntza balioetsiko dira baremoko azpiatal honetan?	18
Zein ziurtagiri balioetsiko dira?	18
MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.5 ATALA: ATZERRIKO HIZKUNTZEN TITULUAK	18
Zein hizkuntza balioetsiko dira baremoko azpiatal honetan?	18
Zein ziurtagiri balioetsiko dira?	18
MEREZIMENDUEN BAREMOKO III.1 ATALA: ETENGABEKO PRESTAKUNTZA	19
Zein prestakuntza ikastaro balioesten dira?	19
Zein puntuazio dagokie?	19
Zer agiri aurkeztu behar dira prestakuntza ikastaroak justifikatzeko?	19



Ziurtagirian orduak adierazi orde, kredituak adierazi badira, zein da 10 orduren baliokidetasuna kreditutan?	19
Balioetsiko dira ordu edo kredituen iraupena jasotzen ez duten ziurtagiriak?.....	19
Balioetsiko dira prestakuntza ikastaroak edo jarduerak, haien deialdiaren egileak direnean hezkuntzakoak ez diren administrazioak edo irabazi asmorik gabeko erakundeak, etengabeko prestakuntzarako itunak sinatuak dituztenak?	19
Irakasle gisa emandako ikastaroak balioetsiko dira?.....	20
MEREZIMENDUEN BAREMOKO III.2 ATALA: HIZKUNTZEN TITULAZIOAK.....	20
Zein hizkuntza balioetsiko dira baremoko azpiatal honetan?	20
Zein ziurtagiri balioetsiko dira?.....	20
Zein ziurtagiri ez dira baloratuko azpiatal honetan?	20
ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IZANGAIEN ZERRENDAK	21
Hautapen prozedura bukatutakoan, aldi baterako kontrataziorako zerrenda berriak eratuko dira?	21
Zer araudik arautzen du aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenden eraketa?	21
Lehen probako lehenbiziko ariketara bakarrik aurkezten banaiz, badut eskubidea zerrenda orokorrean sartzeko?.....	21



DEIALDIAREN EBAZPENA ETA HAREN BARNEAN SARTZEN DIREN PROZEDURAK

Zein ebazpenek onesten ditu Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten Kidegoetan sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan igotzeko hautapen prozedurak?

Azaroaren 15eko 249/2024 Ebazpenak, Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariarenak.

Zein egunetan argitaratu zen ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean?

2024ko abenduaren 13an.

Zein da eskabideak aurkezteko epea?

2024ko abenduaren 14tik, larunbata, 2025eko urtarrilaren 2ra, osteguna

Zein dira parte hartu ahal izateko prozedurak?

Hona hemen parte hartu ahal izateko prozedurak:

- Sartzeko hautapen prozedura, bi aukera hauek dituenak:
 - Txanda irekia
 - Erreserbako txanda, desgaitasuna dutenendako.
- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozedura.
- Kidego berean espezialitate berriak eskuratzeko prozedura.

Nork har dezake parte sarbide irekiko hautapen prozeduran?

Kasu bakoitzean deialdiko I. tituluko 2. oinarrian eskatzen diren baldintza berariazkoek gain, baldintza orokorrak betetzen dituzten guztiek.

Betebehar guztiak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete beharko dira (2025eko urtarrilaren 2an, beraz), harik eta karrerako funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartu arte.

Txanda irekiko hautapen prozeduraren bidez aurkez naiteke eskainitako lanpostu guztietara?

Ez, bakarrik deialdiak adierazitakoaren arabera txanda irekirako lanpostuak daudenetara. Zehazki, ezin izanen da txanda irekiaren bidez parte hartu espezialitate hauetan:

- Enpresen Administrazioa (euskaraz).
- Alemana (gaztelaniaz).
- Esku-hartze Soziokomunitarioa (gaztelaniaz).
- Fabrikazio Mekanikoaren Antolaketa eta Proiektuak (euskaraz).

Nor aurkez daiteke desgaitasuna dutenendako erreserba txandako lanpostuetara?

Deialdian sartzeko eskatzen diren baldintza orokorrak eta berariazkoak betetzeaz gain, % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna aitortua duten izangaiak, betiere irakasle lanerako oro har eskatzen den gaitasun funtzionala badute, eta kidegorako eta lortu nahi den espezialitaterako behar dena ere bai.

Nork har dezake parte Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegora igotzeko prozeduran?

Hautapen prozedura horretan parte hartzen ahalko dute funtzio publikoaren indarreko legeriak aipatzen duen B taldean sailkatutako irakasleen kidegoetako funtzionarioek, baldin eta, kidego horretan sartzeko eskatzen diren titulazioak izanik eta betekizun orokorrak beteta, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan gutxienez sei urte eman badituzte jatorrizko kidegoan karrerako funtzionario gisa.

Nork har dezake parte espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran?

Zein kidegotakoa den eskuratu nahi duen espezialitatea, kidego bereko karrerako funtzionarioek, Nafarroako Foru Komunitatearen menpeko destinoa dutenek. Eszedentzian dauden funtzionarioen kasuan eta, orobat, kanpoko lanpostu bati atxikita edo antzeko egoeraren batean daudenen kasuan, baldintza hau destinoko azkeneko ikastetxean betetzea eskatuko da. Era berean, eskuratu nahi den espezialitatea zein den, bertan txanda irekian sartzeko eskatzen diren betebeharrak betetzea.

Irakasle funtzionarioek ezin izanen dute parte hartu, baldin eta behin betiko destinoa beste hezkuntza administrazio batzuetan badute eta Foru Komunitatean zerbitzu eginkizunetan edo antzeko egoeran badaude.

KIDEGOAN SARTZEKO HAUTAPEN PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA ETA BETEBEHARREN ETA MEREZIMENDUEN FROGAGIRIAK AURKEZTEA

Zein da hautapen prozeduretan parte hartzeko eskabidea eta betebeharrak eta merezimenduen frogagiriak aurkezteko epea?

2024ko abenduaren 14tik, larunbata, 2025eko urtarrilaren 2ra, osteguna, biak barne. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 2an, osteguna, bukatuko da, 23:59an.

Zein egunetan bete behar dira onartuak izateko betebeharrak?

2025eko urtarrilaren 2an.

Parte hartzeko eskabideak beteta eta erregistratuta egon beharko du eskabideak aurkezteko epearen barnean.

Zenbat eskabide aurkeztu behar ditut prozedura honetan?

Aukeratu nahi diren espezialitate eta hizkuntza guztietarako eskabide bat.

Zer gertatzen da parte hartzeko hainbat eskabide aurkezten baditut?

Aplikazioak aurrekoa baliogabetuko du, eta ez dira kontuan hartuko aurretik emandako datuak (aurkeztutako dokumentazioa bai, kasu guztietan gordeko baita). Parte hartzeko, izangai eta lanpostu bakoitzeko eskabide bat hartuko da kontuan, eta aurkeztutako azken eskabidea izanen da baliozkoa.

Zein merezimendu balioetsiko dira lehiaketaldiko merezimenduen baremoan?

Betebeharrekin gertatzen den gisa berean, 2025eko urtarrilaren 21erako lortu diren merezimenduak baizik ez dira balioetsiko, betiere izangaiak eskabideak aurkezteko epearen barnean aurkeztu baditu.

Nola aurkeztu behar ditut merezimenduen egiaztagiriak?

Merezimenduen kopia eskaneatua aurkeztu behar da, bakoitza dokumentuaren **aurrealdea eta atzealdea** jasotzen dituen fitxategi batean. Dokumentu guztiek **indarrean** egon behar dute.

Zer da kopia eskaneatu bat deialdi honi dagokionez?

Dokumentu bat eskaneatzearen emaitza da. Ez da nahitaezkoa dokumentua konpultsaturik aurkeztea, ezta kopia elektroniko kautoturik ere. Administrazioak edozein unetan eska ditzake jatorrizkoak.

Parte hartzeko eskabidea Erregistro Orokorraren bidez tramitatzen ahal dut?

Ez. Aplikazio berariazkoen bidez baizik ez da tramitatzen ahal:

Sartzeko eta igotzeko hautapen prozeduran parte hartzeko:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/bigarren-hezkuntza-heo-eta-lh-sektore-berezietako-irakasle-oposizio-lehiaketa-2025>

Espezialitate berriak eskuratzeko prozeduraren probarako:

<https://tramitespersonal.navarra.es/eu/tramites/on/-/line/funcionario-a-de-carrera-del-cuerpo-de-profesores-de-ensenanza-secundaria-de-profesores-de-escuelas-oficiales-de-idiomasy-del-cuerpo-de-profesores-especialistas-en-sectores-singulares-de-formacion-profesional-adquisicion-nuevas-especialidades-en-el-mismo>

Zer dokumentu mota eransten ahal dut eskabide telematikoan?

Fitxategi luzapen hauek onartzen dira: PDF edo jpg. Ezin da fitxategi konprimaturik erantsi, ezta Worden edo antzekoetan idatzitako agiririk ere.

Espezialitate batean baino gehiagotan aurkez naiteke hizkuntza berean?

Espezialitate eta hizkuntza batean izena eman eta onartzeak **ez dio izangaiari bermatuko eskatu dituen espezialitate eta hizkuntza guztietan parte hartu ahal izatea**, ezartzen den hautapen prozesuaren antolaketak ondorio hori baldin badakar, salbu eta espezialitate bera baldin bada baina beste hizkuntza batean. Administrazioak ez die tasarik itzuliko espezialitate desberdinetarako hautagaiei, baldin eta antolakuntza arrazoiengatik ezinezkoa bada horiek garatzea.

Deialdian badira zenbait espezialitate, desgaitasuna dutenendako lanpostuen erreserbarik ez dutenak. Halakoetan, nola tramitatu behar dute beren eskabidea ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenek?

Eskabidea desgaitasuna dutenendako erreserba txandaren bidez tramitatu behar da; Administrazioak ofizios aldatuko du txanda irekira, eskaturiko egokitzapenak kontuan harturik aldatu ere.



Unibertsitateko gradu bat dut eta ez dut prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko masterrik. Halaber, Lanbide Heziketako goi mailako ziklo bat eta prestakuntza pedagogikoko espezializazio diploma (“ez masterra”) ditut, eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten Kidegoko espezialitateetara aurkeztu nahi dut. Zer titulazio aurkeztu behar dut?

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko masterra ez duzunez, onartua izateko, Lanbide Heziketako goi mailako titulua eta prestakuntza pedagogikoko espezializazio diploma (“ez masterra”) soilik aurkeztu beharko dituzu. Unibertsitateko graduako titulua edo diplomatura edo ingeniari-tza teknikoko titulua aurkeztuz gero, onartua izateko nahitaez aurkeztu beharko zenuke prestakuntza pedagogikoko masterra.

Unibertsitateko gradu bat dut eta ez dut prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko masterrik. Halaber, Lanbide Heziketako goi mailako ziklo bat eta prestakuntza pedagogikoko espezializazio diploma (“ez masterra”) ditut, eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko espezialitateetara aurkeztu nahi dut. Aurkez naiteke?

Ez, ez duzulako Hezkuntzako Lege Organikoak eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuak, irakasle kidegoetan sartzeko eta igotzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua onesten duenak, “oro har” eskatzen duten titulazioa. Izan ere, irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduaren arabera, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren prestakuntza baliokidea bakarrik da baliozkoa, irakaskuntza ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio bat izanik masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonendako.



AZTERKETA EGITEKO ESKUBIDEAK

Espezialitate eta hizkuntza bakoitzari dagokion zenbatekoa ordaindu behar da.

Nor daude tasak ordaintzetik salbuetsita?

a) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenak. Salbuespena baliatzeko, desgaitasun maila egiaztatzen duen ziurtagiria edo irizpena aurkeztu beharko da, organo eskudunak emana.

b) Hautapen deialdia argitaratu baino hilabete bat lehenagotik gutxienez langabe gisa inskribaturik dauden pertsonak.

Langabe gisa inskribatuta egoteari buruzko baldintza kasuan kasuko enplegu bulegoak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, non agertuko baita zer egunetan inskribatu zen eskatzaile gisa. Baliozko ziurtagiri bat da **“Langabezian etenik gabe inskribatuta egondako aldiari buruzko txostena”**. Ziurtagiria eskabideak aurkezteko epean eman beharko da.

PROZEDURARAKO ONARPENA

Zer jarduketa egin behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean?

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak honako hauek onetsiko ditu:

a) Izangai onartuen behin-behineko zerrendak onesten dituen ebazpena, honako hauek barne hartuta:

- Izangai onartuen behin-behineko zerrendak.
- Prozedura bakoitzeko izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda, espezialitate eta hizkuntzaren arabera. Zerrenda horietan parte-hartzaileen izen-deiturak eta bakoitzaren prozedurak azalduko dira, bai eta, baztertuz gero, horren arrazoiak ere.
- Hala behar bada, gaztelania maila neurtzeko proba egin behar duten izangaien behin-behineko zerrenda.

b) Erreklamazioa behin-behineko zerrendei:

Izangaiek hamar egun balioduneko epea izanen dute, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita, erreklamazioak aurkezteko eta, kasua bada, baztertua edo ez onartua izatea eragin duen akatsa zuzentzeko. Era berean, beren datu pertsonalak ematean akatsak egin direla ohartu diren izangaiek epe horretan berean adierazten ahalko dute. Erreklamazioak telematikoki aurkeztuko dira deialdiaren webguneko fitxan.



c) Ebazpena, izangai onartuen behin betiko zerrendak onesten dituen, honako hauek barne hartuta:

Behin-behineko zerrendei egindako erreklamazioak ebatzi ondoren onetsiko da, eta honako hauek jasoko ditu:

- Prozedura bakoitzeko izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak, espezialitate eta hizkuntzaren arabera.
- Prozedura bakoitzean baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, espezialitatearen eta hizkuntzaren arabera, baztertzeko arrazoia(k) adierazita.
- Hala behar denean, gaztelania maila neurtzeko proba egin behar duten izangaien behin betiko zerrenda.

Non argitaratuko dira behin-behineko eta behin betiko zerrenden ebazpenak eta behin-behineko zerrendei egindako erreklamazioak?

Deialdiaren webguneko fitxetan argitaratuko dira: [\[sartzea, igotzea\]](#) [\[espezialitate berriak eskuratzea\]](#)

Nola jakinaraziko dira behin-behineko eta behin betiko zerrenden ebazpenen onespina eta behin-behineko zerrendei egindako erreklamazioena?

Behin-behineko zerrendak onesten dituzten ebazpenak webgunean argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat.

KIDEGOAN SARTZEKO HAUTAPEN PROZEDURA

Zein dira sartzeko hautapen prozeduraren faseak?

Sartzeko hautapen prozedurak hiru aldi izanen ditu:

- **Lehiaketaldi** bat, non izangaien merezimenduak baloratuko baitira, deialdiaren I. eranskinean ageri den merezimenduen baremoaren arabera.
- **Oposizioaldia**, non kontuan hartuko baitira kasuan kasuko irakaskuntza espezialitateko berariazko ezagutzak, gaitasun pedagogikoa eta irakaslanerako behar diren tekniken ezagutza.
- **Praktikaldia**, hautapen prozeduraren parte izanen dena.



Zein dira oposizioaldiko probak?

Oposizioaldiak bi proba izanen ditu, biak ala biak baztergarriak. Horietako bakoitzak bi zati izanen ditu:

Lehenbiziko probak zati hauek izanen ditu:

- **A zatia:** proba praktikoa bat, deialdiaren zazpigarren oinarriko 1.2.2 atalean xedatutakoari jarraikiz. Zati praktikoa horrek idatzizko ariketa bat eta trebetasun praktikoen ariketa bat izan ditzake espezialitate jakin batzuetan.
- **B zatia:** idatzizko ariketa bat, deialdiaren zazpigarren oinarriko 1.2.2 atalean ezarritakoari jarraikiz.

Bigarren probak zati hauek izanen ditu:

- **A zatia:** programazio didaktikoa bat aurkeztea, azaltzea eta defendatzea, deialdiaren zazpigarren oinarriko 1.2.3 atalean xedatutakoari jarraikiz.
- **B zatia:** unitate didaktikoa bat prestatzea, azaltzea eta defendatzea, deialdiaren zazpigarren oinarriko 1.2.3 atalean xedatutakoari jarraikiz.

Noiz hasiko da oposizioaldia?

Probak hasteko datak gutxienez zazpi egun natural lehenago argitaratuko dira.

Zein hizkuntzatan egin behar dira oposizioaldiko probak?

Deialdiaren zazpigarren oinarriko 1.2 puntuan xedatutakoaren arabera, hautapropa guztiak euskaraz edo gaztelaniaz egingen dira, espezialitatearen eta irakasteko hizkuntzaren arabera, hizkuntzetako espezialitateak izan ezik, horiek dagokion hizkuntzan egingen baitira.

Zein dira oposizioaldiko proba praktikoen ezaugarriak?

Informazio hori deialdiaren VI. eranskinean dago.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Musika espezialitatean, proba praktikoa bi ariketa izanen ditu, eta egun eta leku desberdinetan egingen dira. Era berean, bai deialdiaren VI. eranskineko 2. ataleko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko espezialitateetan, bai epaimahaiek edo hautapen batzordeek hala zehazten duten Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten Kidegoko espezialitateetan, kasuaren arabera, proba praktikoa bi ariketa izan ditzake, eta egun eta leku desberdinetan egingen dira.

Zer araudik arautzen ditu oposizioko gai zerrendak?

Deialdiaren IV. eranskinean zehazten da zer araudik arautzen dituen gai zerrendak.

Lehen ariketako bigarren probara aurkez naiteke, lehen probara aurkeztu ez banaiz?

Ez, deialdiaren zazpigarren oinarriko 1.2 puntuak honako hau baitio: “Izangaiek oposizioaldiko proben zati edo ariketa guztietara agertu beharko dute. Horietakoren batera agertzen ez badira, baztertu egingen dira hautapen-prozeduratik”.

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA ETA UNITATE DIDAKTIKOA

Zer berrikuntza daude, programazio didaktikoaren aurkezpenari dagokionez?

Programazio didaktikoa telematikoki aurkeztuko da, PDF formatuan, eta 20 MB-koa izanen da gehienez.

Aurkezteko epea bost egun baliodunekoa izanen da, eta ez da hasiko 2025eko apirilaren 28a baino lehen.

Salbuespenik al dago formatu digitalaren baldintzaren inguruan, programazio didaktikoaren aurkezpenari dagokionez?

Bai, euskarazko espezialitate batzuetan beste formatu bat zehazten ahalko da, baldin eta epaimahaia ezin izan bada osatu euskaraz dakiten epaimahaikideekin, Euskarabideari programazioa gaztelaniara itzultzea errazteko.

Kasu horretan, espezialitateak ezagutzera emanen dira.

Zer ulertzen da deialdian esaten bada izangaiak egin duela programazio didaktikoa?

Programazio didaktikoek eta, ondorioz, unitate didaktikoek izangai bakoitzaren originalak eta pertsonalak izan behar dute, eta bakarka egin behar dira.

Zer eduki izan behar dute programazioak eta unitate didaktikoak?

Informazio hori deialdiaren VII. eranskinean dago, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat. Izan ere, errege dekretu horrek onesten du Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetan sartu, igo eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua.

Zein alderdi formal eta luzera izan behar ditu programazio didaktikoak?

Programazio didaktikoak eta, egokia denean, urteko lan planak gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, leerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafiko, taula, irudi eta antzekoetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki oinetan, orri oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutako tamainetakoak ez direnak erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. 10 unitate didaktiko izanen ditu gutxienez edo, egokia denean, 10 lan unitate. Unitateak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak unitate didaktikoaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Urteko lan planaren kasuan, 10 unitate didaktikoak ordezkatu egingen dira esku hartze psikopedagogikoko 10 programarekin. Programak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak lan planaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Programazio didaktikoaren / urteko lan planaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.

Programazio didaktikoak hiperestekak edo QR kodeak baditu, epaimahaiak ez du kontuan hartuko eta ez du baloratuko horien bidez atzitu daitekeen informazioa.

Unitate didaktikoen ordezkuntza egoerak ezar daitezke?

Ez, ezinezkoa da. "Unitate didaktikoa" terminoa ez dator curriculum arauditik; aitzitik, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan definitzen da (276/2007 Errege Dekretua, otsailaren 23koa, irakasle kidegoetan sartu, igo eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua onesten duena).

"Ikaskuntza egoera" terminoa agertzen da curriculumean, eta unitate didaktikoaren barruko irakatsi eta ikasteko jarduerak planteatzeko modu gisa ulertu behar da. Beraz, "ikaskuntza egoera" terminoa ez da "unitate didaktikoa" terminoaren baliokidea, haren elementu metodologikoetako bat baizik.

Programazio didaktikoan nahitaezkoa da hezkuntza arreta ez-presentziala aipatzea?

Ez da nahitaezkoa. Beraz, izangai bakoitzak erabakiko du egoki iruditzen zaizkion egokitzenak egingen dituen, bai programazio didaktikoan, bai proben gainerako zatietan, bere irizpidearen arabera.

Hezkuntza orientazioko eta komunitatearentzako zerbitzuetako espezialitateen programazio didaktikoen kasuan, aurkez al daiteke urteko lan plan bat?

Bai, espezialitate horietan izangaiek urteko lan plana aurkezten ahalko dute. Plan horretan gutxienez esku-hartze psikopedagogikoko 10 programa sartu, zehaztu eta garatu beharko dira. Hain zuzen, programa horiek ikasturte batean ezarriko dira Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako etapetako batean, izangaiak aukeratuta.

SARTZEKO PROZEDURARAKO MEREZIMENDUEN BAREMOA

MEREZIMENDUEN BAREMOKO I. ATALA: IRAKASLE LANETAN EGINDAKO ZERBITZUAK

Nola justifikatuko dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarendako egindako zerbitzuak?

Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak ofizioz aurkeztuko ditu izangai guztiek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuan egindako zerbitzuak. Hartara, ez da beharrezkoa inolako agiririk eskatzea edo aurkeztea.

Nola justifikatuko dira beste hezkuntza administrazio batzuetan egindako zerbitzuak?

Zerbitzuei buruz hezkuntza administrazio horiek egindako ziurtagiriaren bidez. Kasu guztietan adierazi behar da zein kidegotarako izendatu zen, edo haren kode ofiziala, baita zerbitzuak hasi eta bukatu zireneko data zehatzak ere. Ez dira onartuko jabetza hartzeko eta zerbitzuak uzteko orriak.

Nola justifikatuko dira ikastetxe publikoez bestelako ikastetxeetan egindako zerbitzuak?

Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiri baten bidez. Ziurtagiri horrek Hezkuntza Administrazioako Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren oniritzia izan beharko du, eta hartan agertu beharko da zer hezkuntza mailatan edo etapatan jardun duen, baita zerbitzuen benetako iraupena ere, zerbitzuen hasiera data eta amaiera data zehatzak adierazita. Ziurtagiri horiei oniritzia emateko, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak interesdunei eskatuko die lan bizitzari buruzko txosten eguneratua eta kontratuak aurkez ditzatela.

Esteka honen bidez egin behar da Nafarroako ikastetxeetan egindako irakasle zerbitzuak ontzat emateko eskaera: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on?tramiteId=99090>
Nafarroako Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egin beharreko tramite horri buruzko zalantzak 848 42 65 42 telefonoan edo sie/hiz@navarra.es helbide elektronikoa argituko dira.

Nola justifikatuko dira Espainiako zein atzerriko unibertsitateetan egindako zerbitzuak?

Unibertsitatearen ziurtagiria beharko da, honako hauek adieraziko dituenak: zerbitzuak noiz hasi eta bukatu ziren, data zehatzak adierazita, eta zerbitzu horiek irakasle gisa izan zirela.

Nola justifikatu behar dira atzerrian egindako zerbitzuak?

Dagokion herrialdeko Hezkuntza Ministerioak edo Espainiar Estatuak Atzerrian duen Administrazio Orokorrek egindako ziurtagiriaren bidez frogatuko dira. Bertan honako hauek adierazi beharko dira: irakatsi den hezkuntza maila eta irakasgaia, zerbitzuen iraupena eta horiek hasi eta bukatu zireneko data zehatzak. Ziurtagiri horiek gaztelaniazko itzulpenarekin batera aurkeztu beharko dira. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.1 ATALA: IKASKETA ESPEDIENTEA

Eskatzen den tituluaren ikasketa espedientearen ez bada batez besteko nota agertzen, espedientearen balioetsiko da?

Aurkeztutako ikasketa espedientearen soilik balioetsiko da batez besteko nota agertzen bada. Horregatik, beren ikasketa espedientearen batez besteko nota ez duten izangaiak hura kalkulatzeko eskatu beharko diote dagokion unibertsitateari.

Ikasketa espedientearen batez besteko nota aurkeztea ezinezkoa bada, titulazioari dagokion ikasketa planaren ondorioz **ikastetxeak hura kalkulatzetik ez duelako**, irizpide hauen arabera kalkulatu da ikasketa espedientearen batez besteko nota:

- Irakasgaiaren arabera antolatutako ikasketa planak direnean, batez besteko nota ateratzeko, puntuazio guztien batuketaren emaitza zati irakasgaiaren kopurua egiten da. Kredituen bidez antolatutako ikasketa planak direnean, izangaiaren ikasketa espedientearen batez besteko puntuazioa ateratzeko formula hau erabiliko da: izangaiak lortutako kredituen batura, horietako bakoitza kasuko kalifikazioen balioarekin biderkatuta, zati guztira lortutako kreditu kopurua.
- Irakasgaiaren puntuazioak zenbakiz adierazita ez daudenean, baliokidetasun hauek aplikatuko dira:
 - Nahiko: 5,5 puntu.
 - Ongi: 6,5 puntu.
 - Oso ongi: 7,5 puntu.
 - Bikain: 9 puntu.
 - Ohorezko matrikula: 10 puntu.
- Ondorio horietarako, praktiketako nota beste irakasgai bat balitz bezala zenbatuko da.
- Espedientearen irakasgai baliozkotuak edo “gai” kalifikazioa dutenak azaltzen badira, ez dute inolako baliorik izanen, lehiatzaileak aurkezten ez badu baliozkotutako edo “gai” gisa kalifikatutako irakasgaiaren zenbakizko balioa azaltzen duen ziurtagiria.
- Ikasketa planaren barrenean ez dauden prestakuntza jardueren bidez lortutako kredituak ez dira zenbakitara ekarriko, eta ez dira aintzat hartuko ikasketa espedientearen batezbestekoa ateratzeko.

Eskaerak aurkezteko epean batez besteko nota ez duten ikasketa espedienteak aurkeztu badira, haiek zuzentzeko eskatuko da merezimenduen behin-behineko balioespenak argitaratzen direnean.

Ikasketa espedientearen **batez besteko nota aurkeztea ezinezkoa bada**, izangaiak bi ziurtagiri hauek igorri beharko ditu:

- Ziurtagiri akademiko pertsonala.
- Ikasketak egin zituen ikastetxearen ziurtagiria, titulazioari dagokion ikasketa planaren ondorioz ikastetxeak batez besteko nota kalkulatzetik ez duela adierazten duena.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.3 ATALA: UNIBERTSITATEKO BESTE TITULAZIO BATZUK

Baloratzen al dira nahitaezko titulu ez diren gradu tituluak?

Bai. Unibertsitateko gradu titulu ofizialaren kopia elektronikoa aurkezteak balioko du, bakar-bakarrik, bigarren zikloko titulazioari dagokion puntuazioa aitortzeko, salbu eta behar den ikasketa ziurtagiria aurkezten bada, unibertsitateko gradu titulu ofiziala lortzeko kreditu guztiak egin eta gainditu direla egiaztatzen duena; kasu horretan, 2.3.1 azpiatalari (lehen zikloko titulazioak) dagokion puntuazioa ere emanen zaio.

Titulazio berean oinarritzen diren espezialitateak balioetsiko dira?

Ez, ez baitira titulu desberdintzat hartzen.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.4 ATALA: ATZERRIKO HIZKUNTZEN TITULUAK

Zein hizkuntza balioetsiko dira baremoko azpiatal honetan?

Hizkuntza eskola ofizialek emandako maila aurreratuko ziurtagiriak baizik ez dira baloratuko.

Izangaiak lortu nahi duen lanpostua euskaraz eman beharrekoa bada, ez da baloratuko hizkuntza eskola ofizialek luzatutako euskara maila aurreratuko ziurtagiria.

Zein ziurtagiri balioetsiko dira?

Abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan (abenduaren 23ko BOE) ezarritako C1 eta C2 mailetako ziurtagiriak, bai eta II. eranskinean ezarritako baliokidetzak ere. Hizkuntza bakoitzean ziurtagiri bakar bat puntuatuko da, egiaztatzen den maila gorenari dagokiona.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO II.5 ATALA: ATZERRIKO HIZKUNTZEN TITULUAK

Zein hizkuntza balioetsiko dira baremoko azpiatal honetan?

ACLESek (Goi Mailako Irakaskuntzako Hizkuntzen Ikastetxeen Elkarteak) onartutako ezagutza ziurtagiriak dituzten atzerriko hizkuntzak baizik ez dira balioetsiko; honako hauek, alegia: alemana, frantsesa, ingelesa, italiera, txinera, greziera, portugesa, errumaniera, errusiera, turkiera; eta balioetsiko dira baldin eta eskabideak aurkezteko azken egunean indarra badute.

Zein ziurtagiri balioetsiko dira?

ACLESek (Goi Mailako Hezkuntzako Hizkuntza Zentroen Elkarteak) onartutako hizkuntzetan gaitasun aurreratua egiaztatzen duten ziurtagiriak, hau da, C1 edo C2 mailakoak.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO III.1 ATALA: ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Zein prestakuntza ikastaro balioesten dira?

Soilik etengabeko prestakuntza eta hobekuntza ikastaro gaindituak, loturik egonez gero eskuratu nahi den espezialitatearekin, eskolaren antolaketarekin, hezkuntzari aplikatutako teknologia berriekin, didaktikarekin, psikopedagogiarekin edo hezkuntzako soziologiarekin, eta antolatu badituzte hezkuntza eskumen osoa duten administrazio publikoek edo unibertsitateek; edo hezkuntza administrazioekin elkarlanean ari diren entitateek antolatutako jarduerak badira eta etengabeko prestakuntza planean sartuak, edo kasuan kasuko hezkuntza administrazioak onartuak.

Zein puntuazio dagokie?

0,020 puntu emanen dira 10 prestakuntza orduko. Ondorio horietarako, prestakuntza jarduera guztietako orduen batuketa egingen da, eta ez da puntuaziorik emanen 10 ordutik beherako hondarrarengatik.

Zer agiri aurkeztu behar dira prestakuntza ikastaroak justifikatzeko?

Ikastaroen ziurtagiria, kasuan kasuko erakunde edo zentroak eginga, non ikastaroaren kreditu edo orduak espresuki adieraziko baitira. Etengabeko prestakuntzaren planeko jardueretan edo hezkuntza administrazioak onartu dituen ziurtagirian espresuki adierazi beharko da kasuan kasuko jarduera plan horretan sartuta dagoela edo hezkuntza administrazioak onartua dela; bestela, hori gabe, homologazioa edo onarpena erantsi beharko da.

Ziurtagirian orduak adierazi orde, kredituak adierazi badira, zein da 10 orduren baliokidetasuna kreditutan?

Oro har, ulertuko da kreditu bat 10 orduren baliokidea dela.

Balioetsiko dira ordu edo kredituen iraupena jasotzen ez duten ziurtagiriak?

Ez.

Balioetsiko dira prestakuntza ikastaroak edo jarduerak, haien deialdiaren egileak direnean hezkuntzakoak ez diren administrazioak edo irabazi asmorik gabeko erakundeak, etengabeko prestakuntzarako itunak sinatuak dituztenak?

Ez, jarduera sartua ez bada hezkuntza administrazioek sustaturiko prestakuntza plan batean edo haien onarpena ez badu; batean nahiz bestean erantsi beharko da hezkuntza administrazioak egindako homologazioa edo aitortza.



Irakasle gisa emandako ikastaroak balioetsiko dira?

Ez.

MEREZIMENDUEN BAREMOKO III.2 ATALA: HIZKUNTZEN TITULAZIOAK

Zein hizkuntza balioetsiko dira baremoko azpialal honetan?

Euskara, ingelesa, frantsesa eta alemana baino ez dira baloratuko.

Zein ziurtagiri balioetsiko dira?

Euskararen, ingelesaren, frantsesaren edo alemanaren B2, C1 edo C2 maila egiaztatzen duten ziurtagiriak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabekoak (Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 28ko 30/2011 Foru Aginduan ezarri direnetakoak), haien balorazioa 2.4 edo 2.5 azpiataletan aurreikusita ez baldin badago. Euskara titulazioak ez dira baloratuko, baldin eta euskara eskakizuna duten lanpostuak lortu nahi badira. Ez da baloratuko ez unibertsitateko titulaziorik, ez hizkuntzen eskola ofizialek emandako maila aurreratuko ziurtagiririk, 2.3 eta 2.4 ataletan baloratzen direlako.

Zein ziurtagiri ez dira baloratuko azpialal honetan?

3.2 azpialal honetan ez dira inolaz ere baloratuko unibertsitateko titulazioak, haien balorazioa 2.3 azpiatalean jasota baitago.

Eta ez dira inolaz ere baloratuko merezimenduen baremoko 2.4 eta 2.5 azpiataletan, hurrenez hurren, baloratzen diren hizkuntzen ziurtagiriak.

Maila desberdinetako ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten badira hizkuntza bereko hizkuntza gaitasuna baloratzeko, maila gorenekoa baloratuko da soilik, beheragoko maila duen ziurtagiria 2.4 apartatuan baloratzeko modukoa bada salbu, kasu horretan 2.4 apartatukoa baloratuko baita soilik.

Hizkuntza berari dagozkion titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten badira, eta maila berekoak badira, 2.4, 2.5 edo 3.2 azpiataletan baloratzeko modukoak, hizkuntza horren ezagutza behin baizik ez da puntuatuko.

Hizkuntza berari dagozkion titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkezten badira, eta B2 mailakoak badira, hizkuntza horren ezagutza behin baizik ez da puntuatuko.

Euskaraz eman beharreko lanpostuetara lehiatuz gero, ez da euskara titulu bakar bat ere baloratuko.



ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IZANGAIEN ZERRENDAK

Hautapen prozedura bukatutakoan, aldi baterako kontrataziorako zerrenda berriak eratuko dira?

Bai. Oposizio-lehiaketa bukatu ondoren sortzen diren aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendak arau honi jarraikiz kudeatuko dira, alderdi guztiei dagokienez: Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasleen lanpostuak aldi baterako kontratazioaren bidez betetzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituen Foru Agindua, hots, zerrenda horiek egiten diren unean indarrean dagoena.

Zer araudik arautzen du aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenden eraketa?

Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko [37/2020 Foru Agindua](#)k arautzen du gai hori, foru agindu horren bidez onetsi baitziren Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuekin irakasle lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak.

Lehen probako lehenbiziko ariketara bakarrik aurkezten banaiz, badut eskubidea zerrenda orokorrean sartzeko?

Izangai bat deitutako lehen ariketara aurkezten bada eta ez bigarrenera, eta puntuazio positiboa lortzen badu lehen ariketan, kontratazio zerrenda orokorrean sartuko da, betiere aldi baterako kontrataziorako izangaien kudeaketa arauak arautzen dituen foru aginduan eskatzen diren titulazio baldintzak betetzen baditu.